Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko otsailaren 19a, ostirala — 33 — Viernes, a 19 de febrero de 2016

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ERRENTERIAKO UDALA

### Trafiko eta Garraio Saila

*Iragarkia*

2015eko azaroaren 24an Udalbatzak egindako ohiko osoko bilkuran Herritarren Segurtasunean Parte Hartzeko Tokiko Kontseiluaren Araudiari behin behineko onespena eman zitzaion.

2015eko abenduaren 7-eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez 30 laneguneko epea ireki zen erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Epe hori bukatua, ez denez inolako erreklamaziorik ez iradokizunik aurkeztu Erreglamentu hori behin betiko onartutzat ematen da eta horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, onartutako Herritarren Segurtasunean Parte Hartzeko Tokiko Kontseiluaren Araudi horren testu osoosoa argitaratzen da eta argitaratzen denetik 15 lanegunera sartuko dela indarrean adierazten da.

Eta orohar guztiek jakin dezaten eta eraginak izan ditzan argitaratzen dut. Era berean, jakinarazten da akordio honek administrazioaren bidea agortzen duela eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izango da.

Errenteria, 2016ko otsailaren 11.—Alkatea. (1024)

Hau da onartu den Erreglamentuaren testua:

*Errenteriako udalaren herritarren segurtasunean parte hartzeko tokiko kontseiluaren araudia.*

ZIOEN AZALPENA

Gizarte modernoen konplexutasunak alfer-lan bihurtzen du orokorrean delituaren aurka jarduteko ohiko polizia-erreakzio eta zigor-sistema. Ordena eta gaizkileari jazarpena egitea izan da urteetan zehar kontrol soziala izateko agintaritza ororen eginkizun nagusia. Zigor-sistema izaten zen oinarrizko erantzuna eta funtsean bakarra delitu-mota oro geldiarazteko. Gaizkileari jazarpena egitea izaten zen, ikuspegi honetatik, poliziaren funtsezko helburua. Haatik, gaur egun, delituaren aurkako borrokan eraginkorra izateko, ahalik eta kasurik gehien egin behar zaio ez soilik ustezko gaizkileari, baizik eta baita biktima edo jomuga potentzialak izan daitezkeenei ere, hots, delitua jazo daitekeen inguru-sozial, ingurune guztiei. Testuinguru honetan funtsezkoa da prebentzioa.

Horrek esan nahi du xedea aldatu behar dela. Izan ere, lehen esaten genuen poliziak legea betearazi behar duela (betetzen ez zutenak aintzat hartuta). Orain zera esango dugu: poliziak hiritarren segurtasuna bermatu behar du (gizarte osoa aintzat hartuta) eta hori lortzeko prebentzioa, bitartekotza eta gizarte-integrazioak askozaz ere garrantzitsuagoak dira errepresioa bera baino.

## AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA.

### Área de Tráfico y Transportes

*Anuncio*

El Pleno de la Corporación en sesión ordinaria celebrada el 24 de noviembre de 2015, aprobó inicialmente el Reglamento del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana.

Mediante la publicación de Anuncio en el Boletin Oficial de Gipuzkoa con fecha 7 de diciembre de 2015 se abrió un plazo de 30 días hábiles para realizar reclamaciones o sugerencias.

Finalizado dicho plazo y a la vista de que no se ha presentado ninguna reclamación o sugerencia, se entiende aprobado definitivamente, y a los efectos previstos en el art, 70-2.º de la Ley 7/1985 del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro del Reglamento del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana, señalando que la misma entrará en vigor a los 15 días hábiles desde su publicación.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, señalando que el presente acuerdo agota la vía administrativa y contra el mismo se podrá interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro recurso que se tenga por conveniente.

Errenteria, a 11 de febrero de 2016.—El alcalde. (1024)

El texto del Reglamento aprobado es el siguiente:

*Reglamento del consejo local de participación en la seguridad ciudadana del Ayuntamiento de Errenteria.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La complejidad de las sociedades modernas, hace inútil la tradicional lucha contra el delito desde la mera reacción policial y el sistema penal en general. El mantenimiento del orden y la persecución de la persona delincuente, ha sido a lo largo de los años, el principal papel de todo el aparato de control social formal. El sistema penal era la respuesta fundamental y prácticamente única al delito de todo tipo. La persecución de la persona delincuente era, desde esta perspectiva, el objetivo fundamental de la policía. Sin embargo, hoy en día la eficacia en la lucha contra el delito, implica que se preste la máxima atención no sólo al presunto delincuente, sino también a las víctimas o blancos potenciales, así como al entorno social, ambiental y de todo tipo en el que éste se pueda producir. La prevención adquiere en este contexto un valor fundamental.

Esto significa básicamente cambiar el objeto de trabajo. Antes decíamos: la policía tiene que hacer que se cumpla la ley (centrándose en las personas que la incumplen). Ahora diremos: la policía tiene que garantizar la seguridad ciudadana (centrándose en toda la sociedad) y para lograrlo la prevención, la mediación, la potenciación de la integración social se van a convertir en instrumentos mucho más importantes que la propia represión.

EK\CV GAO-I-2016-01024

Usaian polizia-mota ezberdinek (lege-betearazlea) euren gain hartu dute lege-betearazlearen egitekizuna, hori izan delarik ardatz nagusia eta gaizkilearen aurka jarduteko metodoa. Alabaina, zabaldurik dagoen uste honen lekua hartu du polizia aktiboagoak (zerbitzua emateko), zeinaren egitekizun nagusia baita deliturik eta nahasmendurik ez ematea herritarren bizikalitatea hobetzeko eta ordena mantentzeko. Hau da, jazarpenaren garrantzia baztertu gabe, orain hiritarren segurtasuna da muina, zeinaren hasierako puntua baita herritarrek askatasun publikorako duten eskubidea.

Gaur-gaurkoz herritarren segurtasuna hartu behar da botere publikoek gauzatzen duten ekintza integratu baten modura, herritarren lankidetzarekin batera interes publikoko erakundeen bitartez, bizikidetza baketsua ziurtatzera bideraturik, hala nola indarkeria ezabatzera, bide eta espazio publikoak era baketsuan eta zuzen erabiltzera eta, oro har, pertsonen eta beren ondasunen aurkako delituak eta hutsegiteak egitea saihestera.

Testuinguru berri honetan, herritarrek izan behar dute segurtasuna sortzen eta bizikidetza hobetzen dutenak; hartara, toki-mailan sustatzen diren herritarren segurtasuneko politiketan inplikatu eta parte hartu behar dute.

Bestalde, ikuspegi orokor honetan inplikatu behar dute Udaleko sail eta azpisail guztiek, bereziki gizarte-arazo espezifikoak jorratzen dituztenek, bermatzeko kalitatezko zerbitzu publikoak izango dituztela herritarrek, administrazioko instantzia guztien artean koordinatuta. Izan ere, gatazkei edo hauen prebentzioari hobeto egokitzen zaion erantzuna emateko organoa izan nahi da, horretarako ikuspuntu, interpretazio eta faktore anitzeko begirada izango duelarik.

Horrela, bada, kide anitzeko organoa izango da Kontseilua eta kontsulta eta hausnarketa izango ditu jarduera nagusi. Udaleko azpisailen eta herritarren segurtasunaren arloan eskumena duten administrazio-instantzien topagune izateaz gain, udalerrian hainbat kolektiborekin eta gizarte-arazoetan jardun diren eta herritarren segurtasuneko politiketan inplikatuta edo horien eraginpean dauden gizarte-eragileen parte-hartzea ere izango du. Helburua da arloko jarduera, programa eta politikak sustatzea diziplina anitzeko ikuspegitik, perspektiba soziala eta prebentziokoa txertatuta.

Administrazio-organo horren xedea izango da baterako erantzukizun soziala bultzatzea herritarren segurtasunerako politiketan, Administrazioa herritarrengandik hurbilago egon dadin eta azkarragoa eta kalitate hobekoa izan dadin.

Azken batean, organo honen bidez lortu nahi dena da herritarren segurtasunerako zerbitzua kalitatezkoa, proaktiboa eta prebentziokoa izatea, herritarren beharrei erantzuteko eta zerbitzu emateko gai dena eta gatazkan inplikatutako alderdi guztien ikuspegia biltzen duena, Udalaren jarduna egokia izan dadin gatazka konpontzeko, betiere inplikatutako alderdiekin eta arlo honetan eskumena duten instantzia administratiboekin koordinatuta.

I. TITULUA

KONTSEILUAREN ERAKETA, HELBURUAK ETA FUNTZIOAK

*1. artikulua. Eraketa eta izaera.*

1. Errenteriako Udalean eratzen da Herritarren Segurtasunean Parte Hartzeko Kontseilua, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontsultako eta hausnar-

Tradicionalmente los diferentes modelos de policía (policía legalista) han asumido la tarea de hacer cumplir la ley como núcleo central de la labor policial y como método de lucha contra la delincuencia. Sin embargo, esta creencia generalizada ha dado paso a una policía más proactiva (policía de servicio) cuyo principal objetivo como servicio público va a ser la ausencia de delitos y desorden para conseguir mantener el orden y aumentar la calidad de vida de la ciudadanía. Es decir, sin dejar de valorar la importancia de la acción represiva, ahora se pone el acento en la seguridad ciudadana cuyo punto de inicio es el derecho de la ciudadanía al ejercicio de las libertades públicas.

Hoy por hoy la seguridad ciudadana debe entenderse como la acción integrada que desarrollan los poderes públicos, con la colaboración de la ciudadanía a través de organizaciones de interés público, destinada a asegurar su convivencia pacífica, la erradicación de la violencia, la utilización pacífica y ordenada de vías y de espacios públicos y, en general, evitar la comisión de delitos y faltas contra las personas y sus bienes.

En este nuevo contexto, la ciudadanía debe convertirse en coproductora de seguridad y de mejora de la convivencia, por lo que debe comprometerse y participar en la elaboración de las políticas de seguridad ciudadana que se promuevan desde el ámbito local.

Por otra parte, en esta visión global es totalmente necesario que todas las áreas y subáreas municipales, cada una en su medida, se impliquen, y en especial, aquellas en las que se trabajan problemáticas sociales específicas, al objeto de garantizar a la ciudadanía unos servicios públicos de calidad, y coordinados entre todas las instancias administrativas. Todo ello en aras a buscar a través de este órgano la mejor solución posible de los conflictos y en su prevención, teniendo en cuenta para ello las diversas perspectivas, interpretaciones y factores que puedan confluir.

En base a todo ello, el Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana se constituye como un órgano colegiado municipal de naturaleza consultiva y deliberante, donde además de las diferentes subáreas municipales e instancias administrativas competentes en materia de seguridad ciudadana, también tendrán su punto de encuentro y participarán diferentes agentes sociales con trayectoria en el municipio trabajando con diferentes colectivos y problemáticas sociales, e implicados y/o afectados por las políticas de seguridad ciudadana; todo ello, al objeto de promover y estudiar actuaciones, programas y políticas en la materia desde una óptica multidisciplinar, e incorporando una perspectiva social y preventiva a las mismas.

Dicho órgano administrativo tratará de facilitar la corresponsabilización social en la formulación de políticas de seguridad ciudadana, posibilitando un mayor acercamiento de la Administración a la ciudadanía y una mayor agilidad y calidad en el funcionamiento de la misma.

En definitiva, mediante este órgano se tratará de conseguir un servicio de seguridad ciudadana de calidad, proactivo y preventivo, que de respuesta y servicio a las necesidades de la ciudadanía, que recoja la perspectiva de las diferentes partes implicadas en un conflicto, para que la actuación a llevar a cabo por el Ayuntamiento, en su caso, sea adecuada para resolver el conflicto, y coordinada con las partes implicadas y las diferentes instancias administrativas con competencia en la materia.

TÍTULO I

CONSTITUCIÓN, OBJETIVOS Y FUNCIONES DEL CONSEJO

*Artículo 1. Constitución y naturaleza.*

1. Se constituye en el Ayuntamiento de Errenteria el Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana de Errenteria, al amparo de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguri-

ketako kide anitzeko udal-organo gisa. Herritarren segurtasunerako udal-politiketan inplikatuta edo horien eraginpean dauden eragileen parte-hartzea izango du.

2. Kontseiluak esku hartuko du proposatzen zaizkion eta egoki deritzen gai guztietan; horretarako, proposamen, txosten edo irizpen ez-lotesleak egingo dizkio Udalari.

3. Kontseiluaren eta Udalaren arteko harremana Udaltzaingoko sailak edo azpisailak bideratuko du.

*2. artikulua. Helburuak.*

Kontseiluaren jarduera helburu hauek lortzera bideratuko da:

— Sustatzea eta aztertzea herritarren segurtasunaren arloko tokiko jarduera, programa eta politikak, diziplina anitzeko ikuspegitik eta perspektiba soziala eta prebentziokoa txertatuta.

— Sakontzea arlo honetako jardueren koordinazioan eta bultzatzea polizia-instantzien eta inplikatutako eragileen arteko lankidetza.

— Baterako erantzukizun soziala bultzatzea herritarren segurtasunerako politiketan, Administrazioa herritarrengandik hurbilago egon dadin eta azkarragoa eta kalitate hobekoa izan dadin.

— Herritarren segurtasunerako zerbitzua kalitatezkoa, proaktiboa eta prebentziokoa izatea, herritarrei zerbitzura dagoena, beste instantzia batzuekin koordinatuta.

*3. artikulua. Funtzioak.*

Kontseiluak funtzio hauek izango ditu:

— Kontsultako, azterketako eta aholkularitzako zerbitzua ematea Errenteriako Udalari momentuko ezaugarrien eta egoeraren, lekuaren eta udalerriaren errealitatearen arabera egokiak diren segurtasun-politikak diseinatzeko.

— Bizikidetza nahas dezaketen egoeren jarraipena egitea (xenofobia, indarkeria matxista, eskola-indarkeria, drogak, delinkuentzia, etab.) eta diziplina anitzen ikuspegitik aztertzea konponbideak aurkitzeko, eta herritarrak arriskuan jar ditzaketen gatazkak prebenitzea.

— Herritarren segurtasunari eragiten dieten fenomenoen bilakaerari buruzko informazioa jasotzea.

— Herritarren segurtasunerako programak eta jarduerak proposatzea edo horien diseinuan parte hartzea.

— Sektore arteko mahai izatea Udala eta bestelako erakunde publiko eta pribatuak bil daitezen herritarren segurtasunaren inguruko edozein gai jorratzeko.

II. TITULUA

KONTSEILUAREN ORGANOAK

*4. artikulua. Osaketa.*

Kontseiluak organo hauek izango ditu:

a) Kontseiluaren Batzarra.

b) Lehendakaritza.

c) Idazkaritza.

d) Lan-batzordeak.

dad Pública del País Vasco, como órgano colegiado municipal de naturaleza consultiva y deliberante, donde tendrán su punto de encuentro y participarán los diferentes agentes implicados y/o afectados por las políticas de seguridad ciudadana municipal.

2. La intervención del Consejo Local de Participación se materializará en todas aquellas cuestiones que se le planteen, y tome en consideración, elevando propuestas, informes o dictámenes de carácter no vinculante al Ayuntamiento.

3. La relación entre el Consejo Local de Participación y el Ayuntamiento se llevará a cabo mediante el área o subárea municipal de la Policía Local.

*Artículo 2. Objetivos.*

El Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana de Errenteria orientará su actividad al logro de los siguientes objetivos:

— Promover y estudiar actuaciones, programas y políticas en materia de seguridad ciudadana de ámbito local desde una óptica multidisciplinar, e incorporando una perspectiva social y preventiva a las mismas.

— Profundizar en la coordinación de las actuaciones en la materia, y la cooperación entre las diferentes instancias policiales y los diferentes agentes implicados.

— Facilitar la corresponsabilización social en la formulación de políticas de seguridad ciudadana, posibilitando un mayor acercamiento de la Administración a la ciudadanía y una mayor agilidad y calidad en el funcionamiento de la misma.

— Conseguir un servicio de seguridad ciudadana de calidad, proactivo y preventivo, al servicio de la ciudadanía, y coordinado con otras instancias.

*Artículo 3. Funciones.*

El Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana asumirá las siguientes funciones:

— Ejercer funciones consultivas, de estudio y asesoramiento al Ayuntamiento de Errenteria en el diseño de las políticas de seguridad adecuadas a las características y situación del momento, lugar y realidad del municipio.

— Efectuar seguimiento a aquellas situaciones que puedan perturbar la convivencia ciudadana (xenofobia, violencia machista, violencia sexista, violencia escolar, drogas, delincuencia, etc), analizándolas desde una óptica multidisciplinar, al objeto de buscar soluciones a las mismas, y prevenir conflictos que puedan poner en riesgo al conjunto de la ciudadanía.

— Recibir información sobre la evolución de fenómenos que afectan a la seguridad ciudadana.

— Proponer programas y actividades en materia de seguridad ciudadana, y/o colaborar en su diseño.

— Servir de mesa intersectorial entre el Ayuntamiento y otras instituciones públicas y privadas para cualquier tipo de asunto relacionado con la seguridad ciudadana.

TÍTULO II

DE LOS ÓRGANOS DEL CONSEJO

*Artículo 4. Composición.*

El Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana contará con los siguientes órganos:

a) El Pleno del Consejo.

b) La Presidencia.

c) La Secretaría.

d) Las Comisiones de Trabajo.

EK\CV GAO-I-2016-01024

*5. artikulua. Kontseiluaren Batzarra.*

Kontseiluaren Batzarrak, organo nagusia den heinean, Kontseiluko lehendakaria izango du buru, eta hitza eta botoa izango duten eskubide osoko ondorengo kideek osatuko dute:

— Lehendakaria: Errenteriako alkatea izango da.

— Batzordekideak:

a) Udaltzaingoko sail, azpisail edo zerbitzuren bateko zinegotzi-ordezkaria.

b) Udaltzaingoko ofizial-burua edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa.

c) Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa.

d) Hezkuntza eta Gazteriako teknikaria.

e) Kultura Aniztasuneko, Garapenerako Lankidetzako eta Giza Eskubideetako teknikaria.

f) Berdintasuneko teknikaria edo berak eskuordetzen duen Berdintasun Kontseiluko kidea.

g) Udal-aholkulari juridiko bat.

h) Ertzaintzako ordezkari bat.

i) Elkarteen edo bestelako erakundeen ordezkariak eta herritarren segurtasunaren arloko eragile inplikatuak edo ukituak (10 kide gehienez).

Erakunde eta beste eragileen ordezkariei dagokionez, besteak beste ondorengoak parte hartzera gonbidatuko dira:

— Cáritas.

— Gurutze Gorria / Cruz Roja.

— Izan Elkartea / Asociación Izan.

— SOS Arrazakeria / SOS Racismo.

— Osakidetza.

— Eskola Kontseilua / Consejo Escolar.

— Idazkaria: Udalbatzaren Idazkaria edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa izango da. Kontseiluan parte hartuko du, ahotsarekin baina boto eskubiderik gabe, eta saioetako aktak jasoko ditu.

Kontseiluko kideen hautaketa emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa errespetatuz egingo da, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki.

*6. artikulua. Izendapena.*

Kontseiluko kideak alkateak izendatuko ditu. Halaber, kontseilukide bakoitzaren ordezkoa ere izendatuko da.

*7. artikulua. Karguak berritzea.*

Kontseiluko kideen karguak, kargu teknikoak izan ezik, lau urtetik behin berrituko dira, udal-hauteskundeekin batera eta gehienez sei hilabeteko epean Udalbatza berria sortzen denetik kontatzen hasita.

*8. artikulua. Kargua galtzea.*

Kontseiluko kide direnek kontseilukide kargua galduko dute, honakoren bat gertatuz gero:

a) Agintaldia amaitzea.

*Articulo 5. El Pleno del Consejo.*

El Pleno del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana como órgano supremo, estará constituido por los siguientes miembros de pleno derecho, que contarán con voz y voto, y será presidido por la Presidencia del Consejo.

— Presidente/a: El Alcalde o la Alcaldesa del Ayuntamiento de Errenteria.

— Vocales:

a) La o el Concejal Delegado del área, subárea o alguno de los servicios de la Policía Local.

b) El Oficial Jefe de la Policía Local o funcionario en quien delegue.

c) La Directora de Servicios Sociales o funcionario en quien delegue.

d) La Técnico de Educación y Juventud.

e) La Técnica de Diversidad Cultural, Cooperación al Desarrollo y Derechos Humanos.

f) La Técnica de Igualdad o miembro del Consejo de Igualdad en quien delegue.

g) Una o un Asesor Jurídico municipal.

h) Una o un representante de la Ertzaintza.

i) Un máximo de diez miembros entre representantes de asociaciones u otras entidades y agentes implicados y/o afectados en el ámbito de la seguridad ciudadana.

En lo que a los representantes de asociaciones u otras entidades y agentes implicados se refiere, se invitará entre otros a las que se indican a continuación:

— Cáritas.

— Gurutze Gorria / Cruz Roja.

— Izan Elkartea / Asociación Izan.

— SOS Arrazakeria / SOS Racismo.

— Osakidetza.

— Eskola Kontseilua / Consejo Escolar.

— Secretario/a: El/La Secretario/a de la Corporación, o funcionario/a en quien delegue. Asistirá y participará con voz pero sin voto, y recogerá el acta de la sesiones.

La designación de los miembros deberá respetar el principio de igualdad de mujeres y hombres, según la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Artículo 6. Nombramiento.*

Los y las vocales del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana de Errenteria serán nombrados por el Alcalde o Alcaldesa de la Corporación. Así mismo, se nombrará una persona sustituta de cada vocal.

*Artículo 7. Renovación.*

Todos los miembros del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana, excepto los puestos técnicos, se renovarán cada cuatro años, coincidiendo con la celebración de las elecciones municipales, en un plazo máximo de seis meses desde la constitución del nuevo Consistorio.

*Artículo 8. Pérdida de condición.*

Los y las vocales del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana perderán su condición de miembros del Consejo por alguna de las siguientes causas:

a) Terminación de su mandato.

EK\CV GAO-I-2016-01024

b) Izendapena eragin zuten baldintzak ez gertatzea.

c) Karguari espresuki uko egitea.

d) Kargu publikoetan aritzeko ezgaitzen duen hutsegiteren bat egitea.

*9. artikulua. Bete gabeko karguak.*

Karguren bat bete gabe geratzen denean, ordezko izateko izendaturikoarekin beteko da, betiere arestian aipaturiko baldintzak betetzen baditu. Kargu horretan egongo da ordezkatu duenaren agintaldia bukatzen den arte.

*10. artikulua. Lehendakaria.*

Kontseiluaren lehendakaria Udaleko alkatea izango da. Arlo horretaz arduratzen den zinegotziaren esku utzi ahal izango du lehendakaritza.

*11. artikulua. Lehendakariaren funtzioak.*

Hauek izango dira lehendakariaren funtzioak:

a) Kontseiluaren zuzendaritza.

b) Bilera bakoitzeko gai zerrenda ezartzea.

c) Bilerak deitu eta zuzentzea.

d) Kontseiluak harturiko erabakiak burutzen eta betetzen direla zaintzea.

e) Kontseiluaren ohiko funtzionamendua bermatzea; eskumena izango du berdinketak izaten direnean bere kalitateko botoaren bidez erabakitzeko.

*12. artikulua. Idazkaria.*

Kontseiluaren idazkaria Udalbatzaren idazkaria nagusia izango da, edota berak eskuordetzen duena.

*13. artikulua. Idazkariaren funtzioak.*

Hauek dira idazkariak bete beharreko funtzioak:

a) Kontseiluaren Batzarraren bileretara joatea, hitzarekin baina botorik gabe.

b) Bileretako aktak idaztea eta Kontseiluaren dokumentazioa zaintzea.

c) Kontseiluaren Batzarraren erabakiak eta aktak ziurtatzea.

d) Dokumentazioa eta postazko harremana tramitatu eta artxibatzea.

e) Bileretako gai-zerrenda prestatu eta deialdiak tramitatzea.

f) Kontseilukideentzako dokumentazioa garaiz prestatu eta bidaltzea.

g) Kontseiluak buruturiko jardueren, egindako azterketen eta onarturiko proposamenen urteko memoria prestatzea, eta Udalean eta bestelako administrazio-instantzietan tramitatzea.

h) Lehendakaritzak aginduta, idazkariari dagozkion funtzio orokorretako beste edozein burutzea.

i) Ohiko eta ezohiko bileretako gai-zerrenda prestatzea, lehendakariak onar dezan.

j) Gaiak, txostenak, proposamenak eta irizpideak prestatzea, Kontseiluan eztabaida ditzaten.

k) Jardueren urteko txostena aurkeztea Kontseiluaren Batzarrari.

b) Cuando dejen de concurrir los requisitos que determinaron su designación.

c) Renuncia expresa de los mismos.

d) Incurrir en penas que inhabiliten para el ejercicio de cargos públicos.

*Artículo 9. Vacantes.*

Cuando se produzca alguna vacante, ésta se cubrirá con la persona nombrada sustituta, siempre y cuando cumpla los requisitos mencionados anteriormente y lo será para el periodo que reste hasta el término del mandato de quien hubiere causado la sustitución.

*Artículo 10. La Presidencia.*

El/la Presidente/a del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana será el/la Alcalde/Alcaldesa del Ayuntamiento. El/la Presidente/a podrá delegar la presidencia en el o la Concejal responsable correspondiente.

*Articulo 11. Funciones de la Presidencia.*

Son funciones del Presidente o de la Presidenta:

a) Ejercer la dirección del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana.

b) Fijar el orden del día de cada sesión.

c) Convocar y presidir sus sesiones.

d) Velar por la ejecución y cumplimiento de los acuerdos adoptados por el mismo.

e) Garantizar el normal funcionamiento de éste, teniendo, además, la prerrogativa de dirimir las votaciones en caso de empate por su voto de calidad.

*Artículo 12. La Secretaría.*

La Secretaría del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana se ejercerá por la persona que ostente la Secretaría General del Ayuntamiento, o aquella en quien delegue.

*Articulo 13. Funciones de la Secretaría.*

Corresponde a la o al Secretario el desempeño de las siguientes funciones:

a) Asistir con voz pero sin voto a las reuniones del Pleno del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana.

b) Levantar las actas de las reuniones y custodiar la documentación del Consejo.

c) Certificar los acuerdos y actas del Pleno del Consejo.

d) Tramitar y archivar la documentación y la correspondencia.

e) Preparar el orden del día y tramitar las convocatorias de las reuniones.

f) Preparar y enviar con antelación suficiente la documentación a los y las vocales del Consejo.

g) Elaborar la memoria anual de las actividades desarrolladas por el Consejo, de los estudios realizados y de las propuestas aprobadas, así como su tramitación al Ayuntamiento y u otras instancias administrativas.

h) Llevar a cabo cualquier otra actividad relativa a las funciones genéricas de secretaría que le encargue la Presidencia.

i) Preparar el orden del día de las sesiones ordinarias y extraordinarias, para que las apruebe la Presidencia.

j) Preparar los temas, informes, propuestas y criterios para que el Consejo los pueda debatir.

k) Presentar al Pleno del Consejo el informe anual de actividades.

EK\CV GAO-I-2016-01024

*14. artikulua. Lan-batzordeak.*

1. Lan-batzordeak hiru kontseilukidek osatuko dituzte gutxienez; aztertu beharreko gaian interesa izango dute eta kontseilukideen artean hautatuko dira.

2. Lan-batzordeei dagozkie:

a) Batzorde Iraunkorrarentzako proposamenak eta txostenak egitea; Lan Batzordearen zuzendaria izango da bozeramaile.

Txostenak egiteko, adituei edo elkarteei aholkularitza eta lankidetza eskatu ahal izango zaie.

3. Azterketa sakonagoa behar duten gaietan, Batzarrak proposatuko du lan-batzordeak sortzea. Batzordeak osatzeko akordioan zehaztutako aldizkakotasunaren arabera egingo dituzte bilerak.

4. Lan-batzordeetan lantzen diren gai guztien berri emango da Kontseiluaren Batzarraren bileretan.

III. TITULUA

ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

*15. artikulua. Kontseiluaren Batzarra.*

1. Batzarra da Kontseiluaren organo erabakitzailea.

2. Kontseiluaren Batzarra balioz eratzeko, kideen erdia baino bat gehiago egon beharko dira bertan. Quorum hori saio osoan zehar mantendu beharko da. Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da lehendakaria eta idazkaria edo horien ordezkoak bertan izatea.

3. Kontseiluaren Batzarraren bilerak behar bezala osatu direnean, lehen deialdian egingo dira, eta bigarren deialdian, lehenengo deialditik ordu erdira, baldin eta gutxienez kideen herena bertaratu bada.

*16. artikulua. Bileren aldizkakotasuna.*

1. Kontseiluaren Batzarrak ikasturtean zehar ohiko bi bilera egingo ditu gutxienez, apirilean eta urrian. Lehendakariak deialdiak egingo ditu, gutxienez zazpi egun lehenago.

2. Ezohiko bilera egingo da lehendakariaren ekimenaren bidez edo kontseilukideen laurdenak eskatuta, idatziz eta ezohiko bilera deitzeko dauden arrazoiak adierazita; eta behar bezala osaturiko Batzarrak hala erabakitzen duenean. Ezohiko bileretan ezin izango dira gai-zerrendan ez dauden gaiak eztabaidatu.

3. Kontseilukideek eskaturiko ezohiko bilerak lehendakariak deituko ditu, eta ez dira hamabost egunetik gora izango bilera-eskaeraren eta bileraren artean.

*17. artikulua. Ekimenen memoria.*

1. Urte bakoitzaren amaieran, lan-batzorde bakoitzak urteko ekintzen memoria bat burutuko du, eta Kontseiluaren Batzarrari aurkeztuko zaizkio.

2. Kontseiluaren esku-hartzeei buruzko txosten bat egingo da urtero.

*18. artikulua. Proposamenak eta akordioak.*

1. Kontseiluak izaera parte-hartzailea duenez, beharrezko elkarrizketak eta eztabaidak sustatuko dira, adosturiko eraba-

*Artículo 14. Las Comisiones de Trabajo.*

1. Las Comisiones de Trabajo estarán formadas por al menos 3 personas, elegidas de entre los miembros del Pleno del Consejo, que estén interesados en la materia objeto de estudio o análisis.

2. Corresponde a las Comisiones de Trabajo:

a) Elaborar propuestas e informes para el Pleno del Consejo, ejerciendo de portavoz quien ejerza la Presidencia de la Comisión de trabajo.

Para la elaboración de sus informes podrán solicitar el asesoramiento y colaboración de personas o entidades cualificadas en el tema de que se trate.

3. El Pleno del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana propondrá la creación de Comisiones de Trabajo en aquellos asuntos que requieran de un estudio concreto, y celebraran sus sesiones con la periodicidad determinada en el acuerdo de su creación.

4. Se dará cuenta en las sesiones ordinarias del Pleno Consejo Local de Participación de los asuntos que se traten en las Comisiones de Trabajo.

TÍTULO III

ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO

*Artículo 15. El Pleno del Consejo.*

1. El Pleno es el órgano supremo del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana.

2. Para la válida constitución del Pleno se requiere la asistencia de la mitad más uno de sus miembros. Este quorum deberá mantenerse durante toda la sesión. Será necesario, en todo caso, la asistencia de la o del Presidente y de la o del Secretario, o de las personas que los sustituyan.

2. Las reuniones del Pleno se celebrarán en primera convocatoria al quedar válidamente constituido, y en segunda convocatoria, media hora después de la primera, si asisten al menos un tercio de sus componentes.

*Artículo 16. Periodicidad de las sesiones.*

1. El Pleno del Consejo se reunirá como mínimo en sesión ordinaria dos veces a lo largo del año, en los meses de abril y octubre, respectivamente, convocado por su Presidente/a con una antelación mínima de siete días.

2. Se reunirá en sesión extraordinaria por iniciativa de la Presidencia o a solicitud de, al menos, una cuarta parte de sus miembros, por escrito y con indicación de los asuntos que motivan la convocatoria extraordinaria; y por decisión del Pleno del Consejo estando éste válidamente constituido. No se podrán tratar en las reuniones extraordinarias temas que no figuren en el orden del día.

3. Las reuniones extraordinarias solicitadas por los y las vocales serán convocadas por la Presidencia sin que medien más de quince días entre la presentación de la petición y su celebración.

*Artículo 17. Memoria de actuaciones.*

1. Al término de cada año, se redactará una memoria de las actuaciones anuales llevadas a cabo por cada Comisión de Trabajo, que se dará cuenta al Pleno del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana.

2. Se elaborará un informe anual de las actuaciones del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana.

*Artículo 18. Propuestas y acuerdos.*

1. Dado el carácter participativo del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana, se potenciará el diálogo y

EK\CV GAO-I-2016-01024

kiak hartzea bideratzeko. Dena den, adostasunik izan ezean, proposamenak gehiengo soilez hartuko dira.

2. Kontseiluaren Batzarraren proposamen, irizpen eta txosten guztiak helarazi beharko zaizkio Udaltzaingoari dagokion sailari edo azpisailari.

3. Gai-zerrendako gaien inguruan soilik hartu ahal izango dira akordioak, betiere eskubide osoko kideen gehiengo soilak premiazkotzat jotzen ez badu beste edozein gai jorratzea.

4. Idazkariak egingo du bilera bakoitzeko akta eta jasoko ditu bertaratutakoen datuak, hausnarketaren oinarrizko alderdiak eta hartutako erabakien edukia.

5. Aktak hurrengo bileran onartuko dira. Hala ere, hartutako erabakien ziurtagiriak egin ahal izango ditu idazkariak eta horrek ez du eragotziko aurrerago akta onartzea. Akta onartu aurretik egiten diren ziurtapenenetan, berariaz jasoko da akta onartu gabe dagoela.

*19. artikulua. Informatzeko eginbeharra.*

Udal-zerbitzuek Kontseiluaren informazio-eskaerei erantzun beharko diete 20 eguneko epean, txosten-eskaera jasotzen denetik kontatzen hasita. Eskaera lehendakariak edo idazkariak egingo du, eskaera onartu denetik kontatzen hasita hiru eguneko epean. Informazioa kontseilukide guztiei helaraziko zaie eta hurrengo batzarrean emango da ezagutzera. Hala ere, ezohiko bilkura bat deitu ahal izango da informazio hori aztertu eta eztabaidatzeko.

*20. artikulua. Aurreikusi gabeko egoerak.*

Erregelamendu honetan aurreikusi ez denerako, Udalaren Araudi Organikoan eta toki-araudiaren eta administrazio-prozeduraren arloko legerian ezarritakoa beteko da.

*21. artikulua. Desegitea.*

Kontseilua epe mugagaberako eratu da. Udalbatzaren erabakiz soilik desegingo da.

*Xedapen iragankorra.*

Udaltzaingoko sailari edo azpisailari dagokio Kontseilua osatzea eta abian jartzea.

*Azken xedapena.*

Araudi hau indarrean sartuko da behin Errenteriako Udalaren Udalbatzak onartutakoan eta Tokiko Araubidearen alorrean indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak betetakoan; betiere, testua bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

debate necesarios que faciliten una toma de decisiones consensuadas. No obstante, en caso de desacuerdo, las propuestas se adoptarán por mayoría simple.

2. Todas aquellas propuestas, dictámenes, e informes emitidos por el Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana, se trasladarán al área o subárea correspondiente a la Policía Local del Ayuntamiento de Errenteria.

3. Solo podrán ser objeto de acuerdo los asuntos que figuren en el orden del día, salvo que por mayoría simple de las y los miembros de pleno derecho sea declarado como urgente la inclusión de cualquier otro asunto.

4. La Secretaría levantará acta de cada sesión, en la que se especificarán las personas asistentes, los principales aspectos de las deliberaciones y el contenido de los acuerdos adoptados.

5. Las actas se aprobarán en la siguiente sesión pudiendo, no obstante, emitir la Secretaría certificación sobre los acuerdos específicos que se hayan adoptado, sin perjuicio de la ulterior aprobación del acta. En las certificaciones de acuerdos adoptados, emitidas con anterioridad a la aprobación del acta, se hará constar expresamente tal circunstancia.

*Artículo 19. Deber de información.*

Los distintos servicios municipales deberán contestar a las solicitudes de información requeridas por el Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana en un plazo no superior a 20 días, a contar desde la recepción de la petición del informe, que se realizará por conducto de la Presidencia o de la Secretaría en el plazo máximo de tres días desde la aprobación de la solicitud. La información solicitada se transmitirá a todas y todos los miembros del Consejo y se dará cuenta en la primera sesión ordinaria que se celebre, sin perjuicio de que se convoque sesión extraordinaria para su tratamiento y debate.

*Artículo 20. Situaciones no previstas.*

Para todo lo no previsto en el presente Reglamento se tendrá en cuenta lo estipulado por el Reglamento Orgánico Municipal, y la legislación vigente en materia de régimen local y procedimiento administrativo.

*Artículo 21. Disolución.*

El Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana se constituye por tiempo indefinido. Solo podrá disolverse por acuerdo del Pleno del Ayuntamiento.

*Disposición transitoria.*

La constitución y puesta en funcionamiento del Consejo Local de Participación en la Seguridad Ciudadana se llevará a cabo desde el área o subárea de Policía Local del Ayuntamiento.

*Disposición Final.*

El presente Reglamento entrará en vigor una vez aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria, cumplidos los requisitos establecidos por la legislación vigente en materia de Régimen Local, y al día siguiente de la publicación de su texto íntegro en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2016-01024